

# BERRIGARA

128. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1993, azaroak 26

GATETXEA,  
ELIZA ETA  
UDALA BILDU  
ZIREN  
OSTEGUNEAN

"BEDELKAR",  
DENDARIEN  
ELKARTEA  
ERATUKO DA  
DATORREN  
ASTEAN

KIROLAK

JOSE MARI  
ZEZEAGA ZIGOR  
BARIK GERATU  
DA



## Mizpirualde "hotelean"

Erlojutegia

Bitxitegia

LAISTER

# iRUDI

ZABALIK

Helbide berria: Ibargarai 2 (Frontoi ondoan), BERGARA

# ZABALSER, E.M.

## LA ESTRELLA ASEGURUAK

- *Zerbitzu Orokorrak*
- *Kontabilitate fiskal  
eta laborala*



**Arruriaga, 3 BERGARA**

☎ **76 58 98**

☎ **79 65 53**



# ZABETX

INSTALAZIOAK

**BEROGAILU,  
GAS  
eta  
ITURGINTZA  
AZTERLANAK**

**BAINU  
DISEINAKETA**

**Masterreka, 14**

**BERGARA**

☎ **76 54 14**

## PROTAGONISTAK



**Santa Zezilia** eguna ospatu dute aste honetan herriko musikariek. Bergarako Orfeoia afaria egin zuen larunbat gauean; Udal Musika Bandak, oster, kontzertua eskaini zuen igande eguerdian eta ondoren bazkaria izan zuten Bandako ki-deek Oilagorra elkartean. Aritzeta Abesbatzakoek astelehenean, Santa Ze-

zilia egunean, txanpainarekin ospatu zuten eguna eta Musika Eskolako Gazteen Bandak kalejira egin zuen egun berean. Jubilatuek ere hainbat ekitaldi antolatu dituzte Santa Zezilia egunean. Hain zuzen ere, Jubilatuetako abesbatzak Mizpirualde egoitzan eta jubilatuetan bertan kantatu zuten.

### Santa Zezilia eguna ospatu dute herriko musikariek

## ITURRI ONETIK

### Obrak Central-Hispanon

Banco Central Hispano Fraiskozurin duen bulegoan egingo diren obrak direla eta, Bidekurutzetako bulegoa bakarrik izango da zabalik denbora batez. Fraiskozuriko lokalean hainbat berrikuntza egiteko asmoa dago, Central-Hispano etorkizunari ahalik eta onduen egokitzeko asmoz. Obren hasiera oraindik ez dago zehaztuta baina laister hasiko direla uste da. Lanak burutu ondoren bi lokalen funtzionamendua zehaztuko da.

## ESAN DUTE

"Txapelketan biok ari garela ere kontutan izan behar zuen Zezeagak".

### MANU LEJARDI

Pelotaria  
Zezeagaren bikotea  
txapelketan  
EGUNKARIA

"Laugarren urtez ez dut Espainiako Txapelketa lortzerik izan. Ea hurrengo urtean... Dena den, 3 karreratan Europako txapeldunaren [Egozkue] aurretik gelditu naiz".

### AITOR ZABALETA

Kotxe gidaria  
EUSKADI IRRATIA

"Perurenak nahi izan balu hamar kilo gehiago altxa zezakeen, baina markak kilotik-kilora hobetzen joatea nahiago izan du. Diru gehiago irabaztera joan da".

### PEDRO SALEGI OSA

Hargina  
TELENORTE

**Argitaratzailea:**  
Jardun Elkartea  
Errotalde Jauregia, 20.570  
Bergara. ☎ 76 08 19

**Berrigara**  
Tfnoa. eta Faxa: 76 03 97

**Babeslea:** Bergarako Udala.

**Zuzendaria:**  
Gorka Elorza.

**Erredakzioa**  
Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil eta Mikel Elkorobereibar.

**Maketazioa:**  
Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil.

**Publizitatea eta harpidetzak:**  
Alex Azkarate eta Edurne Arenaza. ☎ 76 03 97

**Erredakzio-kontseilua:**  
Iñaki Eraña eta Alex Labaien.

**Kolaboratzaileak:** Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkorobereibar, Juan Martin Elexpuru, Josu Oregi, Maripi Laskurain, Nerea Alzelai, Ainhoa Lete, Jon Ander Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña, Asier Madinabeitia, Josune Inarra eta Ane Miren Goenaga.

**Argazki laborategia:**  
Pol-Pol Argazki Taldea eta Kiñu.

**Komikia eta marrazkiak:** Josu Okina eta Antonio Arrillaga

**Inprimategia:**  
Gertu Koop. E. (Zubillaga. Onati).

**Banaketa:** Txantxangorri Taldea.

**Copyright:**  
BERRIGARA


**Tirada:** 3.500 ale.

**Lege gordailua:** SS 50/ 91  
ISSN: 1130-6599

**BERRIGARAK** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esan eta eritzien erantzunkizunik.




Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta  
Turismo sailaren laguntza jaso du

# PINTURAS BERGARA, S.L.



Aranerrek, 32 behea. BERGARA.  
Tfnoa eta faxa: 76 11 40

• INDUSTRIARAKO PINTURAK • APAINKETARAKO  
PINTURAK • GARBIKETAK • ERROTULOAK • Etab...



**LOS VISITANTES**

Ostirala: 22.30  
Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.  
Astlehena: 19.30.



**LAS TORTUGAS  
NINJA III**

Larunbata: 17.00.  
Igandea: 11.30.



**EL HOMBRE QUE PERDIO  
SU SOMBRA**

Osteguna: 19.30.

**Zinea**

▼▼ Komedia frantses honek izugarrizko arrakasta lortu du munduan zehar. **Jean Marie Poirek** zuzenduta, berak eta **Christian Clavier**ek Frantziaren historian zehar ibilbide barregarria egingo dute gaur egunerarte.

▼▼ Dinosaurio eta dortokekin luzerako daukagu. Hirugarren zati honetan **Ninja Dortokek** iraganera jo beharko dute bere aintzinakoekin borrokatzeko. Bidaia luze horretan era guztietako etsaiei aurre egingo diete, bere trebezia azalduz.

▼▼ **Alain Tanner** zinegileari dedikatutako zikloa zineklubean. Honako hau bere azken filmetako bat dugu. **Francisco Rabal**, **Angela Molina** eta **Dominic Gouldek** osatutako hirukoteak zalantza asko ditu etorkizunari begira...

**Deiak**

▼ **Abdon Juaristiren** ikasleen erakusketa Nahikari tabernan.

▼ **Musika.** Mikel Markez, Anje Duhalde, Niko Etxart eta Lanperri eta Miliku gaur ostirala 22.00etan Arrasateko Kiroldegian. 800 pta.

▼ **Diapositiba emanaldia** Antzuolako Gaztetxean bihar larunbata 19.00etan.

▼ **Jubilatuen** irteera Lizarrara asteazkenean. 2.225 pta.

▼ **Beira apainduen** erakusketa igandera arte Kultur Etxean.

▼ **Paktu sozialaren** aurkako giza katea igandean 18.00etan Plazan. Herri Batasunak deituta.

**Ogia**

▼ **Igandea 28:** Ogizun.

**GOARDIAKO FARMAZIAK**

- ▼ **Larunbata 27:** Camacho/Español.
- ▼ **Igandea 28:** Camacho/Corcuera.
- ▼ **Astlehena 29:** Puy/Irizar.
- ▼ **Asteartea 30:** Guallar/Amezua.
- ▼ **Asteazkena 1:** Estella.
- ▼ **Osteguna 2:** Mozos.
- ▼ **Ostirala 3:** Camacho.

**BERGARA BOLTSAK**

- ✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.
- ✓ Denetariko konfekzio industrialak
- ✓ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaitz 1, Tfnoa: 76 57 69 Faxa: (943) 76 55 66 BERGARA



Argazkian, Sarah Vaughan. 40 eta 50ko hamarkadan Estatu Batuetan Soul eta Jazz munduan ospe haundia lortu zuen emakumea. 1968ko apirilaren 3an hil zen 66 urte zituela.

**▼ Hilda Rivas Mezzo-sopranoak** eta bere taldeak (Federico de Linos, pianoa; Jose Luis Yague, kontrabaxoa eta Juan Muro, Saxofoia) Gospel kontzertua eskainiko dute larunbatean, hilak 27, gaueko 10.30etan Novedades aretoan. Hilda Rivas, Gospel generoak (Beltz izpiritualak) Estatuan duen ordezkari garrantzitsuenetakoa dugu. Madrileko Musikako Errege-kontserbatorio Nagusian eta Kantu Eskola nagusian ikasi zuen eta opera ikasketak ere egin ditu. Zarzuelako antzerki-opera denboraldietan parte hartu izan du eta "Coro Nacional de España"ko kidea ere bada. Kantaldi ugari eskaini ditu bai Estatuan eta baita atzerrian ere, Alemanian eta Estatu Batuetan, esate baterako. Igandean Bergaran izango dugu.

**5****PROFESIONALAK**

- Ansotegi eta Astarloa / Goñi eta Oregi.
- Etxaniz eta Tolosa / Lejardi eta Errasti.
- Gabilondo eta Errasti II / Badiola II eta Andueza VI.

Larunbatean,  
16.30etan Udal  
Pelotalekuan.



Jokin Etxaniz Bergaran ikusteko aukera.

# KIROL

## KARTELDEGIA

**FUTBOLA**

**BERGARA-INTXAURRONGO**  
Lehen mailako erregionala.  
Larunbata, 15.30. Ipintza.

**BERGARA-GROSEKO**  
Lehen mailako jubenilak.  
Igandea, 16.30. Ipintzan.

**BERGARA-AURRERA DE ONDARROA**  
Lehen mailako kadeteak.  
Larunbata, 17.30. Ipintzan.

**BERGARA-ILINTXA**  
2. mailako kadeteak.  
Igandea, 11.30. Ipintzan.

**BERGARA-AITZGORRI**  
Lehen mailako infantilak.  
Igandea, 10.00. Ipintzan.

**ESKUBALOIA**

**BERGARA-ZARAUTZ**  
Jubenil mailako neskak  
Larunbata, 16.00. Kiroldegian.

**BERGARA-LASALLE LEGAZPIA**  
Jubenil mailako mutilak  
Larunbata, 17.30. Kiroldegian.

**PELOTA**

**BERGARA-ALKIZA**  
Jubenilak, banaka.

**BERGARA-HERNANI**  
Seniorrak, binaka.  
Ostirala, 22.00. Udal Pelotalekuan.  
Kluben arteko Gipuzkoako ligako azken partidua.

**BOLINTXO**

*Kirola egiteko  
behar den guztia*

Ibargarai 10,  
☎ 76 38 32

Paper pintatuak - Pinturak

**A. ZANGITU**

☎ 76 19 54 BERGARA  
☎ 79 91 82 ARRASATE

**ZUBIETA**

**elektragintza**

- ✓ Motorren bobinaketa
- ✓ Era guztietako instalakuntzak

Kruz Gallastegi, 2 behea  
Tfnoa: 76 23 48

### Borreroak baditu milaka aurpegi

Lerro hauek idazten ditut, azaroaren 21ean (igandean) ertzainen partetik jasandako tratu txarra publikoki salatzeko.

Indarkeriaz asko hitz egiten da gaur egun, indarkeria gora, indarkeria behera eta nik galdera hau egiten dut, ez al da indarkeria, lagunekin taberna batetik atera, poteoan genbiltzala eta hitz bat ere tartekatu gabe ertzainak etorri eta porrazoka hastea, eurok jakinda guk ez dugula inongo parte hartzerik orduan gertatzen ziren gertakizunetan?

Manifa bat egon zen Gaztetzearen alde, eta jendearen parte hartzeak argi erakutsi zuen gaur egun nolako alde-kotasuna duen Gaztetzearak. Manifa alai eta erreibindikaribo hau Bergara guztitik ibili ondoren, bukatutzat eman zen plazan, Gaztetzearako bozeramaileek partaidetasuna eskertu ondoren.

Hemendik aurrera igande arrunt batean bezala jarraitu zuen, agian ezberdintasun bakarria Bergara guztia ertzainez josita zegoela zen, eta hauek kokoteraino armaturik.

Huajaloteak entzun eta gero, Deporera joatea erabakitzen dugu, eta aldapatik behera gindoazela "lanzapelotazen" klaskadak entzun genituen. Hariduraz bueltatu ginen, zeren momentu horretan ez bait zegoen inongo kausarik "kargatzeko" eta geure artean galdera egin genuen "ez dute kargatuko, e?". Bi pausu gehiago eta dantzaldia hasi zen,

alde denetarik pelotazoak. Egoera ikusi eta gero hiru lagunok lurrean etzan ginen zalantzarik gabe, gainera badakigu euren punteria oso erlatiboa dela. Beste lagunak zorte hobea eduki zuten, Depor-era heltzeko denbora eduki bait zuten.

Ertzainak gure ondora heldu eta bultzaka eta oihuka handik aldentzeko esan ziguten. Nik ea erotuta zeuden galdetu nien, eurok pelotazoka ari ziren bitartean gu ez ginela mugituko eta gutxiago eurok pelotazoka ari ziren alderantz. Euren erantzuna oso garbia izan zen, nire mutilagunari etengabeko porrazoak eman zizkieten, bai gorputzean eta baita buruan ere (gainera berak ez zuen hitzik ere esan). Beste laguna eta ni aluzinatuta gelditu ginen. Ertzainek bitartean oihuka eta bultzaka jarraitzen zuten, euren porrekin mehatxatzen gintuztelarik.

Mutilagunak jasan zuen kolpaldiagatik, gaizki zegoela ikusi eta gero handik ateratzea erabaki genuen. Depor-era heldu ginenean zorabiatu eta izerditan hasi zen. Azken konklusioa: arineketan irten beharra eduki genuen Bergarako larrialdietara eta gero Arrasateko larrialdietara (eskerrak dena izualdi batean eta beltzune batzuekin bukatu zela).

Indarkeria, ez al da hau indarkeria? Zer da hau? Gazte izateagatik euren mehatxuak eta porrazoak jasan behar al ditugu? Gazte izateagatik ez al daukagu azalpen eskubiderik? Eta erantzuna eduki ezkerro, zergatik erasotzen gaituzte? Norzuk dira kontrolgabeak?

Mesedez, nik hau ez dut jasaten eta

horregatik dagoeneko ez naiz isiltzen. Borreroak baditu milaka aurpegi, bai, noski baietz.

*Garbiñe Ibabe*

### Oinarrizko eskubideak non?

Guk gizakiok, berehala baztertzen ditugu sisteman egoki integratu ez diren pertsonak. Eta hauen bazterterako eta gizartearen "kalte gehiago sor ez dezaten", biderik errazena aukeratzen dugu, gartzeleratzea. Baina gero ardurtzen al gara, erabat baztertuta dugun sektore "ez produktibor" horretaz?

Ea, Konstituzioak "Pertsona guzti-entzat", hain polito aldarrikatzen dituen oinarrizko eskubideak, errespetatzen zaizkien; Nola sartu saku berean ekintza desberdinengatik espetxeratuak izan diren pertsonak? Galdetzen al diogu geure buruari zergatik dauden gartzelan? Zuk zer egingo zenuke, egoera txiro eta marjinal batean jaio eta bizi bazina, lanik ez, ikasketarik ez...?

Errazena pertsonak atakatzeta eta gartzeleratzea da, baina hau honela izanik ere, honek ez du ondorioztatzen, beraien integritate, ohore, intimitate, ... ikasteko, norberaren garapenerako eskubideak, askatasunarekin batera "presoari" ukatu behar zaizkionik.

*Ainboa Larrañaga*

## Tiira ba!



## Josu Okina

## Egutegiak salgai

ARGIAko kalendarioak saltzen ari dira Aranzadi Ikastolako 2. BUP mailakoak. Ikasketa bidaiarako sosak biltzeko ahaleginetan, Zurraderoko merkadilloan jarriko dituzte salgai egutegiak zapatu goizean.

## Maltzaga-Urbina

Deba arroa zeharkatuko duen autopista dela eta, proiektuarekin kezkatuak dauden guztiei dei egiten die "Deba Bailara Bizi-bizirik" taldeak ostiral honetan, hilak 26, arratsaldeko 7etan Kultur Etxean egingo den bileran parte hartzeko.

## Txapa Irratia

Txapa Irratia kolektiboak dei egiten die irriatiarekin zerikusia dutenei larunbatean goizeko 11.30etan Kultur Etxean egingo den bilerara.



lozko ediziora 50 lan inguru aurkeztu ziren, horien artean goian ikus dezakezuenak.

## II. Komiki Lehiaketa antolatu du JARDUN elkarteak

Iaz lortutako arrakastari eutsi nahian Komiki Lehiaketa konbokatuta du aurrean ere JARDUN elkarteak. Lehiaketan OHoko 6. mailatik gorakoek har dezakete parte eta pertsona bakoitzak lan bakar bat aurkeztu beharko du. Taldean aurkeztea posible izango da. Lan guztiak argitaragabeak eta euskaraz izan beharko dute, beraz ezinbestekoa izango da testua sartzea, hau da

marraskia eta testua. Lanak DIN-A3 formatoan aurkeztu beharko dira.


Adinaren arabera 3 talde bereiztuko dira: 1. taldea, OHoko 6., 7. eta 8. mailakoek osatuko dute; bigarrena, 14 urtetik 18 urtera bitartekoek eta hirugarrena, 18 urtetik gorakoek. Lehen taldekoek gutxienez 2 orrialde presentatu beharko dituzte, bigarren taldekoek, gutxienez 3 orrialde eta hi-

rugarrenekoek, gutxienez 4 orrialde.

Lanak 1994ko urtarrilaren 10a baino lehen JARDUN elkartera (Masterreka, 13) eraman beharko dira eta sari banaketa urtarrilaren 21ean egingo da. 128.000 pzt. banatuko dira saritan eta talde bakoitzeko hiru lan onenek jasoko dituzte sariak. Aurkeztutako lan guztiekin erakusketa bat egingo da.

## Euskarari buruz jarduten

Deba Garai eta Beheko 35 bat Udal zinegotzi eta euskara teknikaririk hartu zuten parte astelehenean Bergaran antolatutako Hizkuntza Politikari buruzko Udal Jardunaldietan. Euskadiko Udal Elkarteak (EUDEL) eta Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak (HPIN) antolatutako jardunaldietan, hizkuntza politikaren nondik-norakoak aztertu zituzten HPINeko zuzendarietako bat den Joxe Mari Zeberio, Eusko Jaurlaritzako udal teknikaria den Jose Luis Agirre eta Imanol Galdos EUDELeko euskara teknikariak. Era honetako hitzaldiak bi urtetik bi urtera antolatu izan dira eta aurrekoa ere Bergaran izan zen.



## Parte hartze haundia Argazki Rallyan

46 lagunek, horietatik 20 bat bergararrak, hartu zuten parte joan zen igandean Bergaran jokaturako Argazki Rallyan. Epai-mahaiak abenduaren 4an emango ditu jakitera irabazleen izenak eta sariak abenduaren 11an banatuko dira. Bestalde Aretxabaletako Almen ikastetxeak antolatutako argazki lehiaketan, Daniel Santosek irabazi zuen argazki bilduma onenaren lehen saria. Hirugarren saria, ostera, Jose Aguayok eskuratu zuen. Diapositiba onenaren lehen saria Jabier Areitiok jaso zuen eta gazte onenarena, azkenik, Gorka Areitiok. Bergarako argazkilariak bikain oraingoan ere.

## Mus Txapelketa

El Mundo egunkariak antolatu duen Mus Txapelketako lehen kanporaketak jokatu ziren larunbatean Zabala Jatetxean. Bixente Morais eta Felix Alonsok irabazi zuten eta 15.000 pzta. jaso zuten. Karlos eta German Marzana bigarren sailkatu ziren, 10.000 pzta.ko saria eskuratu.



Uztailean antolatzen diren Herri Olinpiadetarako sosak biltzea, helburuetako bat.

## Jaialdi erraldoia Gabonetan

### Begarako Olinpiada Batzordeak antolatu nahi du

Begarako Olinpiada Batzordeak jaialdi erraldoi bat antolatu nahi du Gabonetan. Helburua, uztailean antolatzen diren Herri Olinpiadei aurre egiteko sosak biltzea da. "Iazko olinpiadek 260.000 pzt.ako aurrekontua izan zuten eta Udalak eman zigun 90.000 pzta.k eta berriko dendariak emandakoa ez zen nabikoa izan", esan digu Olinpiada Batzordeko kide batek.

Jaialdia abenduaren 28an Novedadesen gaueko 10ak aldera hasiko litzateke eta lauzpabost bat

ordu iraungo luke. Play-back saioa, txiste kontalariak, antzerkia, kantariak eta beste eratako saioek osatuko lukete egitaraua. Herritarrek jaialdian parte har dezatela eskatzen dute antolatzaileek.

Sarrerak aurrez salgai jarriko lirateke eta horrez gain fitxa batzuk banatuko lirateke tabernetan, parte hartu nahi dutenek bete ditzaten. Olinpiada Batzordekoek dei egiten diete interesa duten guztiei larunbat honetan eguerdiko 12etan Kultur Etxean egingo den bilerara.

# Biltoki

## PHILIPS

TEKNOLOGIA ETA DISEINUA.  
TB, TURBO DRIVE-DUN BIDEOAK,  
HI-FI MATCH-LINE EKIPOAK, 100  
HERTZIOTAKO DIGITAL SCAM TB-K.

BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

## SONY

TB, BIDEOAK, KAMARAK, HI-FI  
EKIPOAK, SUPER TRINITON TB.

BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

## dekorazioa

ESTILO ETA GAZTE ESTILOKO  
ALTZARIAK, ALFOMBRAK,  
LARRUZKO SOFAK,  
DEKORAZIOTAKO OSAGARRIAK.

SAN MARTIN PLAZA, 2 ☎ 76 43 51

SUKALDE ETA BAINURAKO  
ALTZARIAK. DISEINU ETA  
KALITATE HAUNDIKOAK.  
5 URTEKO GARANTIA.

SAN PEDRO PLAZA Z/G ☎ 76 34 00





Joan zen ekainean bildu ziren lehen aldiz herriko dendari gehientsuenak.

## Bergarako Dendarien Elkarte

### BEDELKAR izenburuaz, asteazkenean eratuko da

Datorren asteazkenean, hilak 1, iluntzeko 8.30etan UNEDeko Areto Nagusian egingo den asanbladan eratuko da Bergarako Dendarien Elkarte (BEDELKAR). Batzarre orokorrean, Zuzendaritza Batzordea aukeratu eta urteko kuota eta elkartearen estatutuak ere onartuko dira.

Herriko 175 bat dendari, joan zen ekainean bildu ziren lehen aldiz. Euren interesak babesteko elkarte bat osatzeko beharra ikusi zuten. Garai hartan multinazional

batek Bergaran hipermerkatu bat zabaltzeko asmoa zegoela zabaldu zen herrian eta horri aurre egin nahian bilerak egiten hasi ziren. "Superfizie hauek bultzatu beharrean, herri barrua bera indartu beharko luke Udalak. Horretarako batu egin behar gara, geure arteko tira-birak alde batera utziaz" adierazi zuten orduan Bergarako dendarien ordezkariak. Harrezkero, gremio bakoitzak izendatutako ordezkarien arteko bilerak izan dituzte.

## Gipuzkoako Futbol Federazioaren 75. urteurrenean

Gipuzkoako Futbol Federazioaren ereserkia egin duten Alfredo González Chirlaque eta Valen Moñux, federazioaren 75. urteurrena ospatzeko ostiral honetan Donostiako Maria Cristina hotolean egingo den afarian izango dira. Gipuzkoa, Euskal Herri edota Estatu mailan futbol munduarekin zerikusia duten direktibo, futbolari edota entrenatzaileak bilduko dira afarian. Aurretik, Bergarako Orfeoia himnoa estrenatuko du. Bien bitartean, Aritzeta abesbatzakoak Azpeitiako Kontzeziñoko monjen konbentuko kaperan kantatuko dute larunbatean 19.30etan.

## HIES ekimena

Kojon Prieto y los Huajolotes, Reincidentes eta Ume gaiztuak taldeek rock kontzertua emango dute larunbat honetan Arrasateko Musakola kiroldegian, 22.00etan hasita. SIDA gaitzari aurre egiteko sosak biltzeko antolatu du HIES ekimena taldeak.

**FS**  
oto sistema

APPÉNIZ

### ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50

**F A N C Y**

GAZTEEN MODA!

Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa; 77 14 24

## SANTOS IRRATI-TB

ELEKTRO TRESNAK • ARGIZTAPENA

**Zuek**

Sukalde altzarien erakusketa

Masterreka, 2 BERGARA ☎ 76 26 10

# Gaztetxea eta Apezpikutzaren arteko bilera atzo Donostian

*Victoriano Gallastegi alkateak bitartekari lana bete zuen*

Gaztetxeko eta apezpikutzako ordezkariak, Jose Maria Setien apezpikua buru zutelarik, atzo goizean bilera bat izan zuten Donostian. Bertan, Victoriano Gallastegi alkatea ere izan zen, bi aldeen arteko bitartekari gisa aritu zelarik. Bilerak bi ordu inguru iraun zuen eta Gaztetxekoek Setieni eurak Komenio kaleko lokalean jarraitu nahi dutela adierazi zioten eta Setienek, bere aldetik, lokala euren proiektuak aurrera eramateko behar zutela, adierazi zien gazteei. Atzoko bileraren ostean ez dute beste bilera bat egiteko datarik zehaztu, baina bi aldeen arteko harremanek jarraituko dute. Horrez gain, pasa den igandean gure herrian Gaztetxearen aldeko manifestazioan 2.000 gazte inguruk parte hartu zuten eta berau

amaitu eta gero Ertzantza eta manifestarien arteko istiluetan gazte batzuk zaurituak izan ziren. Halaber, Ertzantzak manifestapena amaitu ondoren, Pol-Pol tabernan zeudenak irtetzeko ordena eman zuen eta tabernako jabeak adierazi digunez horren aurkako denuntzia jartzeko asmoa du.

## Alkatearen salaketa

Bestalde herriko alkateak epaitegira eraman ditu 6 gazte, salaketan alkateak dioenez gazte hauek beraren aurkako irainak jaurti omen zituzten Udal bulegoetara joan zirenean. Alkateak bere aurka egindako kartel batzuk ere salatzen ditu epaileari aurkeztutako denuntzian. Alkateak adierazi duenez denun-



Gaztetxekoek, euren ikuspuntua azaldu zuten astelehenean prentsaurrean. Beheko argazkian, igandean antolatutako ekitaldietako batzuk.

tziarekin lortu nahi duena, gazte horiek berari barkamena eskatzea da. Bestalde, atzo goizean Gallastegik Euskadi Irratiari egindako adierazpen batzuetan esan zuenez, prest egongo litzateke gazteekin lokalei buruz hitz egiteko, baina berak

esan zuenez *"elkarte eta erakunde guztiek bete behar dituzten arauak beteaz"*.

## Prentsaurrekoa

Astelehenean, Gaztetxekoek prentsaurrean adierazi zuten, positibotzat jo dituzte orain arte antolatutako ekintzak eta euren asmoa Komenio kalean jarraitzea da. Igandean izandako istiluei buruz gazteek gertatutakoaren errua Ertzaintzari bota zioten, euren esan zuten *"guk antolatutako ekintzetan ez zen inongo istilurik gertatu, baina manifestazioa amaitu ondoren Ertzaintzak gazte konkretu batzuren aurka egin zuen"*. Gaztetxekoek herriko musika taldeen eta Taun Taun kolektiboaren elkartasuna izan zuten.



# ESKULAN TAILERRAK

## LANDUKO DIREN ESKULANAK:

- MAKRAMEA
- PINTAKETA (egurra, eskaiola, kamisetak...)
- LARRUA

**TOKIA:** GARTZELA ZAHARRA

## EGUNAK:

- ABENDUAREN 13tik URTARRIL AMAIERA ARTE.
  - Astelehen eta asteazkenetan: 16.00-17.30 / 17.30-19.00.
  - Astearte eta ostiraletan: 16.00-17.30.
- OTSAIL HASIERATIK APIRIL BUKAERA ARTE.
  - Astelehen eta asteazkenetan: 17.30-19.00.


## IZEN-EMATEA:

JARDUNen (Masterreka, 13an. ☎ 76 08 19).  
Abenduaren 3a baino lehen.

**PREZIOA:** 500 pzta.

**OHARRA:** URTEAN ZEHAR IKASTAROAN PARTE HARTZEN DUTEN GUZTIEK LANDUKO DITUZTE HIRU ESKULAN MOTAK.

**ANTOLATZAILEA**



**LAGUNTZAILEAK**



BERGARAKO UDALA  
EUSKARA ZERBITZUA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA

# Mizpirualde, zaharren etxea

**Zaharren egoitzan urte osoan zehar 116 biztanle bizi dira. 8ak aldera jaiki eta gosalduta ondoren, batzuk yoga egiten dute eta besteak euren kabuz ibiltzen dira. Goiza azkar pasatzen zaie, baina arratsalde parte nahiko luzea egiten zaie. Denbora pasa eta euren arteko komunikazioa areagotzeko, aste honetan hainbat ekitaldi antolatu dituzte.**



Alazne Irazabal, Esteban Kintana eta Sor Sara Mizpirualde Egoitzako sarreran.

**M**izpirualdeko zaharren egoitza fundazio publikoa da eta bertan bizi direnek hilabeteko kuota bat ordaintzen dute. Halere, kuota horrekin bertan bizi direnek ez dute guztia ordaintzen eta ondorioz falta den diru kopurua Diputazioak eta Udalak ordaintzen dute. Mizpirualden 116 bizilagun daude eta Bergara, Antzuola eta Elgetako biztanleentzat egina dagoen arren, bertan Gipuzkoako beste herrietako biztanleak ere badaude. Horrelako egoitza bat aurrera eramateko jende askoren laguntza ezinbestekoa da eta Mizpirualden 7 monja daude gau eta egun zaharrak zaintzeko. Horietaz aparte garbitzaileak, sukaldaria, laguntzaileak, gerentea eta gizarte laguntzailea daude. Funtzionamendua

arautzeko horien gainera gobernu junta bat dago eta bertako lehendakaria Bergarako alkatea da. Junta alkateaz gain, alderdi politikoetako ordezkariak daude eta herri bakoitzetik (Antzuola eta Elgetatik) ordezkari bat ere badago, guztira 15 pertsona biltzen direlarik. Junta horrek bilerak teorikoki hilean behin egin beharko lituzke, baina praktikan bi hilabete behin edo biltzen dira.

## "Mediku baten faltan gaude"

Mizpirualde egoitzako gizarte laguntzailea, orain arte Emakumearen Zerbitzua eraman duen, Alazne Irazabal da. Berak adierazi digunez, nahiko konforme dago Mizpirualde egoitzaren egoerarekin, baina gauza batzuen beharra ere ikusten du.

*"Orain arte Osakidetza jarritako medikua izan dugu, baina orain presupuesto faltatik kendu egin digute. Dena den Diputazio, eta Osakidetzaekin barremanetan jarri gara, ea medikua jartzen diguten. Pentsa ezazu egoitzan 116 zahar ditugula eta horietatik erdia elbarrituak direla eta horiek ondo zaintzeko beharrezkoa da medikua izatea".*

Orain arte, kasu berezientzat atea zabalik egon arren, egoitzara joan ahal izateko 65 urtetik gorakoek bakarrik zuten aukera. Baina duela gutxi Mizpirualdek Diputazioarekin konbenio bat sinatu du eta horren arabera, Irazabalek dioen moduan "hasieran egoitza Elgeta, Antzuola eta Bergarako biztanleei mugatua zegoen, baina orain Gipuzkoa osotik etor daitezke.

*Halere inguruko herrietakoek aukera gehiago dituzte Mizpirualdera sartzeko".*

## Komunikazio falta nabaria

Zaharren egoitzen funtzioa eta izaera, azken urteotan aldatu egin da. Hasierako filosofian egoitzetara joaten zirenek euren kabuz bitzitzeko gai izan behar zuten, baina Irazabalek adierazi digunez filosofia aldetik aldaketa eman da "orain hona etortzen diren gehienak elbarrituak dira eta beste asko, zahartzarora heltzen zaienean etxean bakarrik gelditzen dira eta ondorioz bitzita baldintzak mantentzeko hona etortzen dira". Bizitza osoan zehar etxebizitza berean bizi ondoren egoitzara joateko ordua heltzen denean jarrera ez-

berdinak daude. "Etxean bakarrik bizi denak edo elbarritua denak atenzio berezia behar dute eta hemen hori eskeintzen da. Baina lehenengo egunak hona etortzen direnentzat nabiko gogorak dira, balere poliki-poliki denon laguntzarekin integratzea lortzen dute. Dena den hemen komunikazio falta handia igartzen da, nabiz eta komunikazio falta hori apurtzeko ekintza ezberdinak antolatzen ditugun" diosku Irazabalek. Zaharren egoitzek ez dute batere ospe onik jendearen artean eta Irazabal ere ados dago eritzi horrekin "jenteak uste du hau aintzinako benefizientzia ospitalen modukoa dela eta oraindik ere kalean pertsona bat guregana datorrenean familiak baztertu egin

duena kontzientzia dago" Irazabalek dioenez.

### "Mizpirualde hotela da niretzat"

Esteban Kintanak 84 urte ditu eta duela 3 urtetatik bere emaztearekin Mizpirualden bizi da. Egoitzan Gobernu Juntan zaharren ordezkari aukeratzeko eginiko azken hauteskundeetan garaile irten zen. Kintana bere borondatez dago Mizpirualden "Emaztea eta biok Donostian bi alabekin bizi ginen eta denboraldi bat batekin eta beste denbora bat bestearekin. Eurek ondo tratatzen gintuzten, baina ikusten genuen borrela ezin genuela jarraitu. Orduan komentatu nion nire emazteari, agian alabak gu izateaz egunen batean aspertuko zirela. Ondo-



Zaharren astean, Mizpirualden, ekitaldi ezberdinak izan dira.


rioz, alabentzat inongo kargarik ez izateko Mizpirualdera etortzea erabaki genuen". Hasera batean Kintanaren alabek erabakia ez zuten batere ondo hartu, baina berak esan digunez "nik Udalarekin hona etortzeko paperak izkutuan egin ni-

tuen, eta etorri baino lehen alabei Mizpirualde bisitatzea eskatu nien, eurak ikusitakoarekin konforme geratu ziren eta emaztea eta biok, dagoeneko 3 urte eta erdi hotelean bizitzen daraganu".

## ESKLUSIBOA: GORRERIA KONPONTZEKO ERABATEKO AURRERAPENA

### MUNDUKO AUDIFONORIK TXIKIENA

Audifono baten berezitasunik nagusienetakoa oharkabea izatea da. Mandu programarria duen "Trilogi" modeloa nimiñoetan nimiñoena da.



### PROMOZIO KANPAINA BERGARAN

**MULTIOPTICAS**

*J. Larranaga*

### Azaroaren 29tik abenduaren 4ra

GAES entpresaren teknikari audipotesistak zure entzumenaren dohaineko azterketa egin eta audifonurik egokiena aholkatuko dizu.



ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
  - ATEAK, etab.
- TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. 76 11 73

Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

Afseden zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

IRRINTZI

Kafetegia

Kafea da gure berezitasuna

☎ 76 20 50

ARIZNOA

Taberna

- Gosariak •
- Pintxo bero eta hotzak •

Irala 1, BERGARA ☎ 76 52 30

BERGARESA  
MARMOLERIA


PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Uriarte, 8 ☎ 76 11 99 / 76 14 27

Faxa: 76 04 77 BERGARA

## Gurasoak erresidentziara eramango al zenituzke?



Jesus Mari Zabaleta  
40 urte, langilea

Ahal den heinean etxean zaintzearen aldekoa naiz, baina ohean mugidu ezinda badaude, irtenbide ona dela uste dut.



Consuelo Pombar  
34 urte, etxekoandrea

Tristea da. Neri ez litzaidake gustatuko eta neure gurasoak ere ez nituzke erresidentziara eramango.



Izaskun Murgizu  
36 urte, langabetua

Ez nituzke gurasoak zaharren egoitzara eramango. Ni neu joatekotan, neure kabuz joango nintzateke, neuk erabakita.



Manuel Moral  
52 urte, udaltzaina

Eurak ados baldin badaude zaharren egoitzara eramatearen aldekoa naiz. Ni neu ere gustora joango nintzateke.

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean, oinetakoak, opari gaiak, jostailuak, zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

JOSEFINA

Ezkongaiak orrazten eta ile-mozketa modernoak egiten espezialistak gara.

Masajeak, solariuma, perikura, estetika...

Espaloia 4, ☎ 76 35 38

BOLINTXO

Okindegia

San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA

Ibarrekruz 4, EIBAR

☎ 79 63 42 ARRASATE



**Corcuera legea  
pil-pilean**

"Ley Orgánica de Protección de la Seguridad Ciudadana" delako legeak edo "Corcuera legea" bezala ezagutzen denak dextenteko tirabira kaleratu zuenetik ez da denbora gehiegi pasa. Aipaturiko legea onartzearekin batera Konstituzio Epaitegira bidalia izan zen eta egun hauetan argitaratu da auziari zegokion azken erabakia. Bertan azterturiko alderdi azpimarragarrienak hauexek dira:

1.- Etxebizitza miaketak epaileen baimenik gabe buruzteko aukera izatea, zenbait kasotara mugaturik, bertan behera gelditzen da. Kezka eta arrakasta handia sortarazi zuen honek. 800 kasotan praktikan jarria izan arren ez du jarraipenik izango, lehengo egoerara itzultzen garelarik.

2.- Poliziak bere kasa zigorrak ezartzea ere baztertu da. Tankera honetako ekintzak gorpuzteko poliziak lege finko baten babesa izan beharko duela argituz.

3.- Lege ospetsu honek ohizkoa diren atxilotu egoera ala aske aurkitzearen artean maila berri bat ere finkatzeko saioa plazaratu du.

Hau da, pertsonaren egoitzetara erretenu gisa eramana izatea. Konstituzio Epaitegiak ez du "erdi mailako" irudi berririk onartzen. Hala ere, interpretazioa aldatuz puntua mantentzearen alde agertzen zaigu; erabaki hau ez da oso ongi ulertzen. Lehengora itzuli behar badugu ez da batere logikoa, eta nahi diren zehaztasunak medio, ikuspuntu hain kontrajarriak suspertzen dituen kontzeptua babestea.

Dena den, ongietorri beroa izan duen erabakia dugu. Erantzunkizun politikoak e.a... beste arazo bat direla deritzat.

**Sabin Zabaleta**



**Informazio  
eskubidea**

Nahiz eta sarritan, gizakiak bere komunikaziorako duen harremanaz hitzegitean adierazpen askatasuna aipatu izan den, kontzeptu hori ez da zuzena. Adierazpen askatasuna kontzeptu haundiago baten barruan dago, informazio eskubidearenean, alegia. Gogoratu behar da informazioari buruz hitzegiten dugunean eskubide bati buruz hitzegiten ari garela, 1948. urtean onartutako Giza Eskubideen Adierazpenean oinarritako eskubide aitortpena jaso zuena. Hiru ahalmen ditu: informazioa jasotzeko ahalmena, ikerketarako ahalmena eta azkenik, informazioa kaleratzeko ahalmena, urtetan adierazpen askatasuna deitu izan arren. Beraz, sistema demokratiko batek eskubide honek bere orokortasunean behar dituen baldintzak garantizatu behar ditu, pertsona batek berri eta eritziak jaso, iker, eta adieraz ahal ditzan.

Bestaldetik, eta Kodigo Penal berria prestatzen ari den unean, informazio eta komunikabideei mugak ezartzearen aldeko ahotsak entzuten dira, oker dabilta. Eskubide bati kanpotik mugak ezartzea, botereak askatasunak arautzen dituen bezala ezinezkoa da. Horrek ez du denak balio duela esan nahi. Eskubideak berak bere salbuespenak jartzen ditu, pertsonaren barrukaldetik gertuago dauden beste giza eskubideak: pertsonaren bizitza, ohorea, barrukotasuna, askatasuna eta irudia. Elkarrekin egon behar direnean eskubide bat estutzen da bestearen onerako. Hala ere, giza harremanetan behar beharrezko eskubidea askatasuna da, hau ez balego besteak ez lirakeke martxan jarriko eta ez lukete ezertarako balioa.

**German Larrañaga**

**BELENGUA**

**Taberna**

**Pintxoak, kafeak...**

Ozaeta 12 ☎ 76 20 24

**LAKOTA** O.E.

**BURDINAKI DENDA  
INDUSTRIARAKO HORNIKUNTZA**

Amillaga, 1  
3. pabiloia  
BERGARA

Tfnoa eta Faxa:  
76 08 32

**Aldoka  
Maldoka  
TABERNA**

Kruz Gallastegi, BERGARA

**HARATEGIA - URDAITEGIA**

**Sebastian Imaz**

**Bildotsa, txahala eta  
oilazkoak**

Harane Erreka, 1  
76 32 67 BERGARA

**GISASOLA** BURDINAKI DENDA

**"Erratzu"**

Pedro Deuna 8, Tfnoa: 76 27 70 BERGARA

## SURPE Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97  
ANTZUOLA

## BERGARA Karrozeria

Txapa - Pintura  
Zubieta, 46 BERGARA  
☎ 76 12 31

## KIZKUR



**Ileapaindegia  
Solariuma**

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

## LARRAÑAGA eta ZUBIA

**Banatzaileak**

Errioxako ardoak, olioak,  
esnea, lejiak...

Martokua 32, tfnoa: 764594

## ETXAGI

**Jatetxea**

Afariak - Bataioak  
Jaunartzeak

Eguneko menua  
Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

## LARREA

**TABERNA**

Kale Barren 17  
ANTZUOLA



### □ Animen eguna

Urte askotako ohitura zaharrari eutsiz, **Animen eguna** ospatu zuten osintxuarrek joan zen astelehenean. Animen eguna azaroko hirugarren astean ospatu ohi da Osintxun azken urteotan. Ohitura hori Soraluze eta Eibarren ere gordetzen da: Eibarren azaroko lehen astean ospatzen dute eta Soraluzen bigarren astean. Animen eguna, antzinan ospakizun erlijiosoak izango zela uste du **Carlos Ostolaza** Osintxuko parrokoak, hala ere ospakizunaren sorrera zehatza ezagutzen duenik ez dugu Osintxun aurkitu, parrokoak berak ere ez omen daki nondik datorren. Kontuak-kontu, afari batekin ospatu ohi dute azken urteotan eta astelehenean **40 bat lagun** bildu ziren Txuringo Jatetxean eta beste **dozena bat** Paola Jatetxean.



### □ Ikasleen Eguna


**Batxilergo Institutoko ikasleek** jai eguna izan zuten joan zen ostiralean. Ikasleen eguna ospatu zuten ikastetxeko gimnasioan eginiko bazkari batean. 200 lagun inguru bildu ziren bertan. Iluntzean, berriz, **Daxka, Etsaiak** eta **MCD** rock taldeek ikastetxeko patioan eskaini zuten kontzertuarekin gozatzeko aukera izan zuten.

## LONBIDE OINETAKOAK

Bidekurutzeta, 5

☎ 76 10 57

BERGARA






□ **Estatu Batuetan kantari**

**Xabier Olabarria** eta **Jose Arrieta** "Alai" taldeko abeslariak Estatu Batuetan zehar aritu zaizkigu azken asteetan. Miarrizeko Ohianburu abesbatzarekin batera, Augusta, St. Louis edota New York hirietan hainbat emanaldi eskaini dituzte.

Bergararren eta Iparraldeko abesbatzaren arteko hasierako harremanak orain dela urtebete inguru sortu ziren, hain zuzen ere, Olabarria eta bere emaztea, Parisera trenez zihoazela **Philippe Oihanburu**, aipatutako abesbatzaren zuzendariarekin kasualitatez topo egin zutenean.

Euskaraz zihardutela ohartu zen Oihanburu eta eurongana zuzendu zen. Harrezkero, Olabarria eta Arrieta sarri joan izan dira Miarrizera bertako abesbatzarekin entsaiatzera eta gaur egun taldeko kide dira.

**Ohianburu abesbatza** 45 abeslariz osatuta dago, gehienak Iparraldekoak dira baina Frantzia osotik etorritako beste hainbat ere badira; eta, orain, bi bergarar eta arrasatear bat ere bai. Philippe Oihanburu zuzendariak 72 urte ditu eta oso pertsona ezaguna da Iparraldean batez ere, baina baita hegoaldean eta Frantzia osoan ere. Idazlea, euskal abizenei buruzko hiru liburu idatziak ditu, koreografoa, garai batean **Oldarra** balet taldean eta **Etorki** dantza taldean zuzendari aritu zen. Azken honekin Bergararen izan zen orain dela 30 bat urte. Oso pertsona atsegina, **Telesforo Monzon** zena laguna zuen.



Goiko argazkian, Arrieta Estatu Batuetako polizia baten ondoan eta behekoan, Philippe eta abesbatzako kide batekin.


**Zertan dibardute ba?**

**IÑAKI UGARTEBURU**



Bergarako Udal Kirol Teknikaria den 31 urteko eibartarrak, kirol taldeei banatzen zaizkien dirulaguntzei buruz jardun du Oñatin egin berri diren Deba Garaiko Kirol Politikari buruzko Topaketetan.

**LINAZISORO-MOLINA**



Asier Linazisorok gizezkoetan eta Ana Molinak emakumezkoetan, joan zen astebukaeran Donostiako Mundaiz gimnasioan jokaturako Gipuzkoako Squash txapelketa eskuratu zuten. Bi bergararrek 29 urte dituzte.

ARTISAUTZAKO IZOKIA

**GOXO-TOKI**

D. Irala, 3 - Tlf. 761235  
Matxiategi, 34 - Tlf. 762337  
BERGARA

**IGARO**

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariuma

Barrenkale 35, Tfnoa; 76 17 27

**Kabutzia**

ARRAINDEGIA

Fralskozuri 6, Tfnoa: 76 56 62

# Umore giroan

## Trajia enkargatzen

Markiegigana juan dira bi gazte trajia enkargatzera. Bata txikixa zan; bestia aundixa. 3.000 pta. balio zeban orduan trajiak. Txikixak diño:

- Zu, baiña, nik orren tela erdixa biot. Neri merkiago eifñ biestazu.

- Trajia, trajia dok, -diño Markiegik. Bueno! Txaleko barik nai bok 2.500.

- Eifñ ba txaleko barik.

Urten dabe biak dendatik eta luziak esatetsa:

- I, baiña, pagatzeko asmorik ez, eta zertan ibili diskusiñuan?

- Berak gitxiago galdu deixan.

## Goizaldian pasautakua

Goizeko bostak eta piku direla, ba doia plaentxiar bat bere etxera. Pegoran zapatak kendu eta, ixil-ixilik, zabaldu dau etxeko atia. Olan sartzerakuan konturatzen da zapatak ate onduan geratu dirala. Zeguan moduan, juan da atera eta zapatak artzerakuan, danba!, atia itxi jako.

- Ene, -diño, ointxe naok ondo!

- Andik laister, urtetzen dau andriak albako Mezatarra eta gizona itxura artan ikusitxa, esatetsa:

- Zer, gizon? Freskuria artzen ala?

*Pedro Zelaia*

# ORAIN DELA 20-25 URTEKO NOTIZIAK



Txapelketaren amaieran Muela nagusitu zen Timofeva, Ogueta, Martinez eta Retegiren aurretik.

## Bergarako xake txapelketa

Ikusmin handia sortarazi du Bergarako Xake Txapelketak. Ia 50 parte-hartzaile dira 1., 2. eta 3. kategorian, guztira jokatzan ari direnak. Lehenengo kategorian parte hartzen ari dira, besteak beste, Muela txapelduna, eta Ogueta eta Martinez txapeldun ohiak. Baita kategoria haundiko beste jokalar sail bat ere. Hala, bada, era guztietako jokalaria ditugu bertan: esperientzia haundikoak (Unamuno eta Retana); azken aldira indarrean datozenak (Jaurregi, Elorza eta Ipiña); xakelari bikainak (Moreno eta Retegi) eta baita, Timofeva gazteak bezala, etorpede handia dute-

nak ere.

Une honetan, txapelketa erdi ingurura iristear dagoela, Ogueta dago lehenengo eta Gallastegi bigarren. Biek ere ez dute oraindik partidarik galdu. Beren atzetik, hurbil, hirukote bat dute: Martinez, Moreno eta Muela. Jarraian, Unamuno, Timofeva eta Retegi doaz, eta beren mailari dagokiona baino beherago Retana eta Jauregi dabilta. Behelaldean Elorza eta Ipiña daude eta sailkapenaren erdi inguruan Potes.

**La Voz. Bikuña.**  
1973-XI-28.

**Asier Madinabeitia, Ane Goenaga eta Josune Iñarrak**  
hemerotekatik bildutako notiziak

**Mari Carmen**  
ARRAINDEGIA

Arrain freskoak,  
izoztuak eta mariskoak

Kruz Gallastegi  
☎ 76 15 90 / 76 40 73

AGENTZIA:  
J. ELKORO

Ibargarai 2, behea  
Tfnoa: 76 57 85  
BERGARA

ZURICH

VITA

UNIBER



CAUDAL

HISPANA

ZURICH TALDEA ASEGURUAK

**ZAPELAITZ**

Taberna

Eguneko menuak  
astelehenetik ostiralera

San Lorentzo 25, BERGARA

**Garnish**

Bitxitegia

San Pedro 12, Tfnoa: 76 03 57

**IRUBIDE**

Taberna

Bazkariak, gosariak,  
afariak, etab.

Urteaga 9, Tfnoa: 76 25 67

# BONOFOTOA



M. A. Elkorobereizbar



## AMAGOIA EZENARRO

**AMAGOIA EZENARRO**k jaso du aste honetan BONOFOTOko saria. Aurreko BONOFOTOko argazkian agertzen zen baserria **Gabiria-Suso** genuen eta **AMAGOIA**k eskuratu ditu asmatzaileen artean zozketatutako **10.000** pezetak.

ZORIONAK **AMAGOIA**ri eta besteok aukera berri bat duzue aste honetako BONOFOTOArekin. Suerte!!

*Donostiako Frantzia pasealekuko etxe honetan dauden esaldiok Bergarako zein "etxe" ezagunean aurkitu ditzakegu?*

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfnoa: \_\_\_\_\_

**Saria:**  
**10.000 Pzta.**

Moztu paper hau eta  
ekarri astebete baino lehen:

**BERRIGARA**  
**Errotalde Jauregia Bergara**



# BERGARAKO

## OSASUN Gida

### ALBAITARIAK:

- ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak). ..... ☎ 76 43 29
  - IRASTORZA BENGEOA Sabin - (Granjako animaliak). Irizar baserria ANTZUOLA. ... ☎ 76 63 46
  - NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika) - Koldo Eleizalde 28. .... ☎ 76 27 97
- ☎ 90 81 09 30

### ANALISI KLINIKOAK:

- LABORRA Isabel - Oxirondo 4 1.B. .... ☎ 76 32 06

### DENTISTAK:

- ASTIAZARAN SOLOZABAL - Iparragirre 1, behea. .... ☎ 76 27 95
- GOROSABEL J. Alberto - Fraiskozuri 5, behea. .... ☎ 76 56 88
- IRIARTE Idoia - Artekale 1, 1.C. .... ☎ 76 01 65
- SUDUPE Felipe - Matxiategi 18, behea ezk. .... ☎ 76 07 66
- MARMOL Pablo - Simon Arrieta 3. 2.B. .... ☎ 76 38 54

### MASAILARIAK:

- AZPEITIA Iruñe - Telesforo Aranzadi 1, 2. .... ☎ 76 14 08
- CASANELLAS Jabier - Boni Laskurain 5 2. E. .... ☎ 76 03 78
- GIARTZU - Boni Laskurain 3, behea. .... ☎ 76 35 71
- MARTINEZ Luis Jabier - Masterreka 7, 3. A. .... ☎ 76 51 18

### MEDIKUNTZA OROKORRA:

- ARCINIEGA Julio - Boni Laskurain 3, 1.B. .... ☎ 76 37 50
- IRIGOYEN Victor - Oxirondo 4 1.B. .... ☎ 76 32 06

### PODOLOGOAK:

- ALTUBE Edurne - Simon Arrieta 2. .... ☎ 76 07 84
- AZPIAZU Arantzazu - Herri Lagunak z/g. .... ☎ 76 41 32

### PSIKIATRA:

- GALLASTEGI Pablo - San Martin plaza 2, 1. ezk. .... ☎ 76 26 64

### PSIKOLOGOAK:

- PSIKOLOGIA Gabinetea (Logopedia, foniatría) - Herri Lagunak z/g. .... ☎ 76 14 80
- URKAREGI Pakita. .... ☎ 76 53 13
- ..... ☎ 76 14 80
- ZUBILLAGA Marisa - Artzamendi 13, 3. .... ☎ 76 30 76



Juan Carlos Altí, prentsaren aurrean asteartean Bergaran eginiko bilera osteko ondorioak esplikotzen.

## J.M. ZEZEAGA: "Barkamenak eskatzen dizkiot zalegoari"

"Damututa nago joan zen larunbatean Logroñoko Adarraga frontoian eman nuen irudi txarragatik eta pelotazale guztiei barkamenak eskatzen dizkiet". Jose Mari Zezeagaren hitzak dira.

Enpresas Unidaseko Juan Carlos Altiren hitzak, berriz, beste hauek: "Zezeagari kargu hartu diogu, batna bere traktoria profesionala kontutan hartuta eta zalegoari barkamenak eskatu ondoren, pelotaria ez zigortzea erabaki dugu"

Joan zen asteartean Enpresas Unidasek Ber-

garan duen egoitzan, Juan Carlos Altí, Fernando Vidarte, Fernando Dublang, Iñigo Idarreta eta Fernando Ugarte enpresaren izenean eta Jose Mari Zezeagak izandako bi ordutako bileraren ostean egindako deklarazioak dira. Azken eguntan hainbeste berba eragin dituen polemikari amaiera eman nahian bi aldeek ez dute beste esdeklaraziorik egin.

**52.080 pzta.ko botea**

Azken bi asteetan as-

matzailerik izan ez dela eta, 52.080 pzta.ko botea izango da aste honetako pelota kinielan. Retegi eta Belokik, Titin eta Arretxeren kontra Eibarko Astelena pelotalekuan igande arratsaldean jokatu du ten partiduarekin antolatuko da aste honetan kiniela. Boleto bakoitzak 200 pzta. balio du eta saria jaso ahal izateko partidu erdiko eta bukerako emaitzak asmatu behar dira. Jasotzen den diruaren % 70a banatzen da saritan eta kinielak ohizko tabernatan egin daitezke.

### Igerilekuak itxita

Larunbat honetan, hilak 27, igerilekuetako bainu eremua itxita egongo da, Gipuzkoako igerilari-rik konpletoena aukeratzeko txapelketa jokatu da eta. Gimnasioa eta goiko aldagelak zabalik izango dira.

### Eskola Kirola

Antzuola B (A taldean) eta Aranzadi F (B taldean), Pazkuetan jokatu den alebin mailako mutilen saskibalo txapelketako finalerako sailkatu dira. Bestalde, Bergarako Udal Atletismo eskolako hurrek oso marka onak lortu zituzten joan zen larunbatean Ordizian jokatu den denboraldiko lehen proban.


### Bergara kanpoan

Asteazkenean Agorrosinen jokatu kopako partiduan Tolosarekin 1-1 berdindu ondoren, kanpoan geratu da Bergarako 23 urtez azpikoen futbol taldea. Joaneko partiduan 2-1 galdu zuen.



Makilatu nahi eta ez badakizu nola, edo zure estiloa aldatu nahian bazabiltza, **LILURA EDERTZE INSTITUTUAN** zeure burua makilatzeko ikastaroak eskeintzen dizkizugu, profesional batek zuzenduta.

Informa zaitetz 76 31 71 telefono zenbakian edota bisita gaitzazu Bergarako Bidekurutzeta kaleko 7. zenbakian, lehen pisuan. Ikastaroaren prezioa: 5.000 pta. Plaza mugatuak.



**JAUJA KIROLAK**  
Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95



*1942eko kintoen anaiarteko eguna, 1950 urte ingurua*

**O**rain dela urte dexente 1942ko kintoek (1921an jaiotakoak) Zabala Jatetxean ospatutako anaiarteko eguneko argazkia duzue hau. Kintoek ospatu zuteneko lehen kinto-bazkariko argazkia omen da hau (1950 urtearen inguruan) eta orduan inguruko zenbait *kinto* ere etortzen ziren elkarrekin egun alai bat pasatzeko asmoz. Joan zen urtean bildu ziren azken aldiz eta hurrengo bazkariko argazkia heldu bitartean garai zaharrak gogoratzea ez dago gaizki.

Horra hor zeintzuk diren **Bixente Jauregik** ekarritako argazkian agertzen direnak. Ezkerretik eskumara:

**Goiko ilaran:** Cruz Telleriarte, Timoteo Iturbe, Javier Manso, Marcos Urbina, Antonio Mamurga, Luis Corral, Felipe Zubizarreta, Francisco Perez, Jesus Jauregi, Sandalio Retolaza, Angel Agirre, Vicente Osinalde eta Jose Mari Uriarte.

**Beherago:** Patxi Imaz, Juan Jose Lascurain, Lorenzo Aranzabal, Sotero Oregi, Jose Arenaza, Leon Aperribai, Urbelua, Juanito Uriarte, Maximo Alberdi, Jesus Mujika, Tomas Mujika, Joaquin Aranes, Jesus Larrañaga, Joaquin Soto, ezezaguna, Jose Luis Zabaleta eta honen aurrean Ignacio Madinabeitia eta ezezaguna.

**2. ilaran:** ezezaguna, Andres izeneko bat, Jose Perez, Victor Mujika, Valentin Pedrejon, Pedro Arrondo, Pablo Ugalde, Alejandro Torre, Patxiko Azkarate, Antonio Maiztegi, ezezaguna, Julian Zelaia, ezezaguna (txapelduna), Isidro Muguruza, Jesus Eguren, Martin Arriaran, Moises Zelaia eta Juan Jose Arrieta.

**Makurturik:** Candido Urriategi, Maximo Gallastegi, Genaro Suinaga, Dionisio Olabarria, ezezaguna, hone aurrean Victorio Bilbao, Pablo Etxeberria, ezezaguna, ezezaguna, Ricardo Murillo, Aierdi eta Antonio Salazar.

**AUTOPULLMANS ARABA**  
Autobusak

**Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara**

ANGIOZAR ☎ 76 55 70

**Beheko**  
**Taberna**

**Menestra eta konejoa**  
**dira gure berezitasunak.**

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

**ETXEBIZITZA**

**Garajea** hartuko nuke alokairuan Tokiederren. ☎ 76 52 45.

**Etxebizitza salgai** Iparra-girre kalean. ☎ 76 40 82.

**Pisua** hartuko nuke alokairuan. ☎ 79 83 50.

**Etxea alokatzen** da Osintxun. ☎ 76 49 60.

**Pisua salgai** San Lorentzon. ☎ 76 27 35.

**Pertsona bat** behar dugu Deustun pisua osatzeko ☎ 76 49 69.

**Pisu amueblatua salgai** Artekale 16an. ☎ 76 12 81.

**Etxea salgai** Katabian. ☎ 76 56 20 (gauzez).

**Pisua alokatzen** da. Bulegoak jartzeko egokia. Merkea. ☎ 76 16 89.

**Bergaran pisua** betetzeko pertsona bat behar da. ☎ 76 55 88 / 76 56 67 (Salva).

**Pisua alokatzen** da. ☎ 76 18 82.

**Garajea salgai** Sta. Marian. ☎ 76 43 89.

**Garajea salgai** Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

**Etxea salgai** Masterrekan. ☎ 76 48 30.

**Pisua alokatzen** da. ☎ 76 46 15.

**Etxebizitza salgai** Martokon. Merkea eta berriztuta. ☎ 76 00 93.

**Garajea salgai** Bolun. 1.000.000. ☎ 76 23 37.

**Etxebizitza** (Martoko 4an) eta **garajea** (Ibargarain) salgai. ☎ 76 00 93.

**DENETARIK**

**Ortuan** lan egiteko makina erosiko nuke. ☎ 76 55 67.

**Citroen Visa** (SS-S) salgai. 50.000 pta. ☎ 764078.

**Ume kotxe** bat salgai. ☎ 76 02 00.

**Renault 21 TXE** bat salgai. 1988koa. Egoera onean. ☎ 76 38 68.

**Pultsera** bat galdu dut Leire izena eta 15-11-89 fetxarekin. ☎ 76 23 84.

**Nintendo** bat salgai (S. Mario Bros) ☎ 76 39 34.

**Ford Fiesta** 1.4 Sporta salgai. SS-X. Egoera eta prezio ezinhobean. ☎ 79 76 89 (Ion).

**Opel Corsa Joy** salgai. Oso egoera onean. 3 urte. Prezio interesgarria. ☎ 79 54 46.

**Seat 1.500 SS-94465** kotxea salgai. Egoera onean. ☎ 76 42 81.

**Gospel talde** bat osatzeko lagunak behar dira. ☎ 76 55 75 (Libe).

**R-18 diesel** (familiarra) eta **Ford Fiesta** salgai. ☎ 76 33 85 (iluntzean).

**Kaminoko "Lasa"** bizikleta salgai. 54a. Egoera onean. ☎ 78 70 04 (Iker).

**Urrezko pultsera** galdu dut. Sarituko da. ☎ 55 15 06.

**Karabana** bat salgai. la berria. ☎ 77 04 98.

**LANA**

**OHO eta ingeles** (maila guztiak) klaseak ematen ditut. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Geriatría** ikastaro bat egin dut eta pertsona zaharrak zainduko nituzke. ☎ 76 24 62 (Ana).

Esperientziadun emakume batek **gutxitu sikiko, elbarri edota pertsona zaharrak** zainduko lituzke. ☎ 76 53 25 / 21 34 31.

**Arratsalde** lan egingo nuke. ☎ 76 21 39 (Rosi).

**Ingeleseko klaseak.** ☎ 76 31 36.

**OHO, REM eta LZ** klaseak. ☎ 76 24 31.

**Dibujo teknikoko** (mekaniko, diedriko..) klaseak ematen ditut. ☎ 765516 (Jabier).

**Ordenadorez** lanak pasatuko nituzke. ☎ 76 05 43.

**Ingeles Filolojia** lizentziatuta, klaseak emango nituzke. ☎ 76 17 36.

Latin, Euskara eta Frantses klaseak. ☎ 76 02 99.

**Hildakoak**

*Manuel Herrero Jimenez*  
azaroak 20, 65 urte

**Jaiotakoak**

*Asier Arriola Alvarez*  
azaroak 13  
*Asier Elorza Jauregi*  
azaroak 14



**ETXEBERRIA**

**ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA**

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65  
BERGARA

Taberna Kafetegia  
**EHIZTARIAK**  
**LOS CAZADORES**

Zubieta 26, BERGARA

# HALTZARI



**FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA**

Bolu, 24 behea

Tfnoa eta faxa: (943) 76 30 57

BERGARA

(Gipuzkoa)



SUKALDERAKO ALTZARIAK



## MOTA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK

**Koldo Eleizalde, 8 BERGARA ☎ 76 00 00**

